AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1682

1608/2012 EBAZPENA, abenduaren 3koa, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentearena, Francisco Javier Pilar Orive jauna, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Zerbitzu Medikoetako zuzendariorde medikoaren kargutik kentzeko dena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 15eko 57/2012 Ebazpenaren bitartez, Francisco Javier Pilar Orive jauna Zerbitzu Medikoetako zuzendariorde mediko izendatu zen ospitale honetan, izendapen askearen bidez.

Azaroaren 27ko 1605/2012 Ebazpenaren bitartez, Francisco Javier Pilar Orive jauna Gurutzetako Unibertsitate Ospìtaleko Pediatriako Zainketa Intentsiboetako atalburu izendatu da. Lanpostu horretaz jabetu aurretik, zuzendariorde postutik kendu beharra dago.

Beraz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak onartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1.e) artikuluak Ospitaleko baliabideak antolatzeko emandako eskumenez baliaturik, zera

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Francisco Javier Pilar Orive jauna Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Zerbitzu Medikoetako zuzendariorde medikoaren kargutik kentzea.

Bigarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Antolakuntzako eta Kudeaketa Administratiboko atalei jakinaraztea.

Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik hilabeteko epean.

Gurutzeta-Barakaldo, 2012ko abenduaren 3a.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentea,
SANTIAGO RABANAL RETOLAZA.